

Júlia Barceló

INDARKERIA ESTETIKOAZ



GORPUTZ ASKATASUNA ALDARRI

“Hautzaro normatiboa izan nuen arren, nerabezaroan halabeharrez sentitu nuen nire gorputzean zeozer gaizkizegoenarensentsazioa. Garairik okerreana 18 eta 20 urte bitartekoa izan zen, aktore profesionala izatea erabaki nuenean: epaituago sentitzen nintzen nire gorputzaren formagatik eta, nolabait, behartuta sentitu nintzen dieta eta kirol anitz egitera. Kontraerran etengabekoan bizi nintzen: nire gorputzarekin gustura egon izan naiz beti, baina, era berean, exigentzia ikaragarria zen. Sentsazioa argia zen: argaldu behar duzu, lana izan nahi baduzu”.

“Inor ez da jaiotzen bere gorputza gorrotatzen, sistemak behartzen gaitu errefusatzera”

Aktorea, antzerki zuzendaria, gorputz askatasunaren aldeko aktibista eta *Operació bikini* (Flamboyant, 2021) liburuaren idazlea da Júlia Barceló (Bartzelona, 1985). Presio estetikoaz eta antzerkiak gorputz aniztasunaren alde apustu egiteko beharraz solastatu gara.

 **SAIOA BALEZTENA**  **JORDI BORRÀS**

Noiz eta nola hasi zinen sufritzen dugun presio estetikoaren kontzientzia hartzen?

30 urte nituenean argi ikusi nuen ez nuela bizitza osoa pasa nahi nire gorputza aldatzeko obsesioarekin; aktorea izatea niretzat ez da hori. Dieta gehiago egiten nituen heinean, okerrago sentitzen nintzen nire gorputzarekin. Halaxe hasi nintzen bizi-pen hori politikoki artikulatzen eta, zorionez, konturatu nintzen ordu-rako feminista anitzek egina zutela lan hori. Grasofobiaren aurkako aktibistak eta euren borroka ezagutzea izan zen lehen agerkunde garrantzitsuena. Gorputz askatasunaren aldeko borroka da eurena baina guztioi egiten digu mesede, sekula ezin izango diet eskertu erakutsi didaten guztia.

Presio estetikoa ideal estetikutik dator, baina nor dago horren atzean?

Hor dago koxka. Patriarkatuak geure gorputzen gaineko kontrola izateko tresna da presio estetikoa,

horretaz konturatzea da askatzeko lehen urratsa da. Geure gorputzarekiko lotsa sentitzen badugu produktu eta dieta anitz erosiko ditugu, eta horrek diru anitz mugitzen du. Alegia, kapitalismoak behar batzuk sortu ditu gure gorputza kanpoko baliabideekin aldatzeko; aspalditik egiten du eta halaxe jarraituko du. Horregatik garrantzitsua da argi edukitzea ez dela inor jaiotzen bere gorputza gorrotatuz, sistemak behartzen gaitu errefusatzera. Kaio-la bat da, suntsitu beharrekoa.

Nola eragiten digu presio estetikoak?

Modu anitzetan. Jaterakoan, besta batera joatean, hondartzan edo pizinan bainatzen garenean, gure sexu harremanetan, lana bilatzean... dirudiena baino hagitzez sakonagoa da. Eta arazoa da presio estetikoa betidanik ulertu dela “emakumeek buruan duten tontakeria” baten gisan. Gorputzaren askatasunaren aldeko aktibistek aldarrikatzen duguna da ezin dela hutsaldu, ondorio

“Ezin zaio inori aktorea izateko aukerarik ukatu gorputz normatiboa ez izateagatik; hori gertatzen bada ogibide gisa porrot egin dugu”.



ikaragarriak dituelako eta gure gorputzen kontrako indarkeria estetikoak eragiten duelako.

Ideal estetikoak “tranpa” bat dela diozu, zergatik?

Naomi Wolf-ek dio ideala dela ez dela existitzen. Sekula ezingo dugu ideal estetikorik lortu, sekula. Gertu sentitu arren, gorputza beti zahartzen delako, mila modutan aldatuz. Eta ez hori bakarrik; ideal estetikoak ere aldatuz doa, eta argaltasuna beti mantentzen den arren, garai bakoitzean erabakitzen da zer den balioduna eta zer ez, garaian garaiko kosmetika edo moda enpresei interesatzen zaienaren arabera. Adibidez, zelulitisak ez zion inori axola norbaitek erran zuen arte garaitu behar genuela. Eta zelulitisarekin amaitzea zentzugabea da, betileak kentzea zentzugabea den bezala: emakumeen %90ak baino gehiagok du eta, beraz, borrokatzen ari gara naturala den zerbaiten kontra.

Presio estetikoak bereziki zigortzen ditu aktoreak, ezta?

Sistematik errepresentazioak sortzeko

behar duen pieza gara. Denak funtzionatu dezan, ideal horren eredu izan behar dugu. Horregatik da hain garrantzitsua kamera eta agertokiaren atzean dauden pertsonen ikuspuntu feminista izatea beti; irudikapena aldatuz eta gorputz aniztasunaren aldeko egiazko apustua eginez soilik borrokatu ahal izango dugulako presio estetikoaren kontra. Antzezpen eskoletatik hasi beharra dago, ezin zaio inori aktorea izateko aukerarik ukatu gorputz normatiboa ez izateagatik; hori gertatzen bada ogibide gisa porrot egin dugu.

Indarkeria estetikoak maila desberdinak ditu. Irakurri dut aurten, guttienez, zazpi emakume hil direla klinika klandestinoetan egindako ebakuntza estetikoetan. Indarkeria estetikoaz nahikoa hitz egiten dugu?

Emakumeen kontrako indarkeria guztiak bezala, isilarazita eta normalizaturik dago. Esther Pineda aktibista, hain zuzen, gisa honetako indarkeria ikusarazteko borrokatzen ari da, ebakuntza estetikoaren harira. Hala ere, “ongi egin-

dako” ebakuntzek ere ondorio arriskutsuak izan ditzakete, eta informazio gutxi dago horren inguruan. Jendeak informazioa izango balu, seguruenik, ez luke ebakuntzarik egingen eta, beraz, enpresei ez zaie interesatzen. Funtsezkoa da kirolfanotik pasa aurretik edo dieta bat egin aurretik informazio guztia edukitzea.

Udan presio estetikoak gora egiten du. Zein uste duzu dela erronkarik garrantzitsuena? Nola hobetu dezakegu gure gorputzarekin dugun harremana?

Hasteko, gure gorputza gorrotatzera garamatzaten mezu toxiko horiek guztiak nondik datozen jakitea ezinbertzekoa da. Atzetik dagoen makinaria identifikatzea eta indarkeria direla argi izatea. Ez diogu inori deus zor: ez argal egotea, ez depilatzea, ezta azal bikaina izatea ere. Gure segurtasun falta ingurukoekin konpartitzea ere garrantzitsua da. Eta, batez ere, gainontzekoen gorputzekin atseginak izatea: iritzirik ez ematea eta gorputz aniztasuna dagoela onartzen hastea, eta azkenik, hori ospatzea. ●